

# DIRU ITURRIAK

Proiektua aurrera ateratzeko hainbat diru-sarrera edukiko ditugu kontuan:

Azoka solidario bat egingo genuke, gure bigarren eskuko hainbat produktu saldu eta bertan lortzen dugun dirua produktuan inbertituko genuke.

Elkarte batzuk diru jakin bat emango digute laguntza bezala gure proiektua aurrera ateratzeko eta errazagoa izateko, esaterako Ordiziako Babes Elkartek diru kopuru jakin bat emango digu gure proiektua aurrera ateratzeko.

Pertsona famatuak gure produktuak publizitatuko dituzte, beraz jendeak ikusi egingo du eta gure aplikazioa ezagunagoa bihurtuko da eta zenbat eta jende gehiagok eduki, orduan eta diru gehiago lortu dezakegu.

Promozio kanpainak ere egingo ditugu erabiltzaileen laguntzaz eta trukean erabiltzaileei premium baliabideak emango zaizkie guri laguntzeagatik.

Lehen 500 erabiltzaileek 3 hilabetez premium aukerak eskuragarri edukiko dituzte doan eta hori “gantxo” bat izango da beraiek aurrerago ordaintzen jarraitzeko.

- Oinarrizko premium atala: 4€ hilero.
- Premium aurreratuena: 8€ hilero.